

DIRU ITURRIAK

Enpresa baten irabazi iturriak dira diru-sarrerak lortzeko erabiltzen dituen baliabideak edo estrategiak. Enpresaren jarduerak diru-iturri hauek sortzea du helburu, gastuak estaltzeko eta etekinak lortzeko. Hau esan ondoren gure enpresaren irabazi iturriak aztertuko ditugu.

Gure enpresaren ongizatea eta etorkizuna ziurtatzea lortzeko hiru diru-sarrera nagusi ditugu: harpidetza prezio dinamiko batekin, non urtero prezio aldaketa jasan ahalko duena, beste aldetik prezio finkoko jarduera espezifikoetarako non momentuan jardueraren arabera prezio finkoak ezarriko dira eta dirulaguntzak, gizarteko kolektibo ezberdinei onurak eta laguntza eskaintzen dizkien egitasmo bat izanik, udalak urtero, proiektuaren etorkizuna bermatzeko dirulaguntza bat emango digu.

Lehenengoa hilabetero ordaintzen den kuota bat izango da, gure bezeroei enpresako aplikazio eskusibora, web-orriaren zerbitzu gehigarrietara eta gure enpresak eskaintzen dituen oinarritzko jardueretan parte hartzeko eskubidea ematen diena. Zerbitzu hau, ordainketa errepikakorren bidez kobratuko da, non hilabetero bezeroek zenbateko bat ordaindu beharko duten. Prezio honek gainera, urtero igoera bat izan dezake urtarrean.

Kuota hau ordainduz eta harpidetza moduan, bezeroek gure web-orrirako eta mugikorreko aplikaziorako zerbitzu gehigarrietara sarbidea eskuragarri izango dituzte eta kalitatezko zerbitzua une oro jasotzeko aukera izateko. Kuota hori nitxozko eta merkatu masiboko bezeroek ordaindu beharko dute eta hilabetearen lehenengo ostiralean kobratuko zaie gure bezeroei euren adierazitako ordainketa moduan eta urteko lehenengo ostiralean, jasandako prezio aldaketen berri emango zaie bezeroei, hurrengo hilabeteetara begira.



Bezerogai bihurtu nahi diren pertsonak lehenengo aste batean zehar gure zerbitzua frogatzeko aukera izango dute eta ondoren, aukera izango dute gure zerbitzuaren erosle bihurtzeko. Hilabete bateko bazkidetza, sei hilean behin bazkidetza eta urteko bazkidetza eskaintzen ditugu. Hilabete bazkidetzan partaide bakoitzak 15,99€ ordainduko dute, sei hilekoan 13,75€ hilabete bazkidetza eta urtekoan 12,5€ hileroko ordainduko dute bezeroek.

Bezero bakoitzaren ezaugarrien arabera, prezio bereziak aplikatuko zaizkie baldin eta egoera zehatz batzuetan badaude eta hori ziurtatzeko dokumenturik erakusten badute. Adibidez, bezeroak familia ugariak badira eta 4 pertsona edo gehiago gure enpresako partaide bihurtzen badira, familia berdineko kide bakoitzari

%20ko deskontua eskainiko diegu. Beste aldetik, ume txikiak 0 - 3 adin tartean daudenak, gurasoen harpidetzaren barruan egongo dira eta ez dute ordainketa gehigarririk burutu beharko eta bestetik, 3 urtetik 12 urte bitarteko umeen kasuan, %50ko deskontua izango dute harpidetzako prezioan.

Enpresaren bigarren diru-iturria, eskaintzen ditugun jarduera desberdinak dira, horiek prezio finkoak izango dituzte.

Diru iturri horiek aktiboen salmentaren bidez lortuko ditugu, hau da, kobratzen ditugun kuotetatik kanpo hainbat ekintza gehigarri bakoitzagatik, 5 - 20€ bitarteko ordainketa bat egin beharko da. Ekintzaren arabera izango da prezioa, eta prezio hauetan hasieran aplikatutako deskontuak ez dira sartuko, hau da, familia ugaria izateagatik deskontuak... baina adinaren inguruan dauden deskontuak bai izango ditugu kontuan.

Aurretik azaldutako ekintza horietako mota desberdin ugari eskaintzen ditugu eta gutxienez hilabeteko ekintza bat programatzen dugu. Adibide horien artean aurki ditzakegu esaterako, mendira egiten diren irteerak, Donostiako edo Bizkaiko kostako herri desberdinak ezagutzera, Espainiako herri desberdinak ezagutzeko historia bitxia dutenak bidaia motzak edo pelikulen maratoiak zineman beste hainbat adibideren artean.

Beste alde batetik, aktiboen salmentagatik diru-sarrera bat izango dugu, izan ere, prezio finkoa izango duten opari txartelak izango dituzte eskuragarri bezeroek gure lokalean, mugikorrek aplikazioan edo web-orrian, zerbitzu edo esperientzia bat oparitzeko aukera izateko harpidetza ordaintzen duen lagun edo familiako kide bati. Opari-txartelak aurrez ezarritako balioa izango dute, eta txartelaren lehen erabilerarekin aktibatuko da. Opari-txartelak prezio desberdinekoak izango dira 50€-koak 6 hilabeteko bizitza dute, 100€-koak urte bateko bizitza dutenak eta 250€-koak 2 urteko bizitza dutenak. Opari-txartel horiek ez dira aurrez zehaztutako jarduera-kopuru baterako izango, jarduera bakoitzak prezio desberdina baitu, eta txartelak duen diruari erreparatu beharko baitzaio. Txartelean jarduera baterako zehazki ematen ez zaizunean falta den dirua eskudiruarekin ordaindu ahal da gure lokalean txartelean dagoen dirua amaitzeko.

Azkenik, adin txikiko zentroekin, gizarte zerbitzuekin, zentro psikologikoekin edo antzeko beste tokiekin elkarlan jarraitua dugunez gure enpresak duen beste diru-sarrera bat Eusko Jaurlaritzako eta Espainiako dirulaguntzak dira, gehien bat adin txikiko umei eskainitako laguntzagatik. Hori gertatzen da kolektibo horiei bideraturiko edo eskainitako zerbitzuak gehienetan doakoak direlako adin txikiko zentroetan bizitzen diren pertsonentzat edota prezio oso sinbolikoa ordaintzen digutelako.

Horiek guztiak dira gure enpresak dituen diru-sarrera nagusiak, epe laburrean arrakasta izateko batez ere; izan ere, epe luzera begira, betiere hobetzeko asmoz aldaketa desberdinak planteatu daitezke.

Diru iturri bakoitzetik guk jasotzen dugun portzentajeak oso desberdina da. Harpidetzatik jasotzen dugun irabazia deskonturik gabe %15 eta %12 artean dago plan desberdinengandik bereizia, irabazi horietatik %5a gertuko beste hiriren batean bigarren egoitza bat irekitzeko helburuarekin gordetzen dugu. Beste aldetik ekintza berezietatik eta opari-txarteletatik lortzen dugun irabazia %4koa da izan ere, diruaren gehiengoa jardueraren kostua ordaintzera doa. Azkenik, ematen dizkiguten dirulaguntzetatik jasotzen ditugun irabazien portzentajeak oso txikiak dira, jarduera horien helburua egiten dugun laguntza baita eta ez dirua irabaztea. Baina, zifra hauetan kontuan hartu behar da enpresa berria dela eta denborarekin bezero gehiago izatekotan kantitateak desberdinak izango liratekeela.

